

1959-VIII-29

Baionan, Musée Basque-n, Eppherre jaunaren sarrera itzaldia.

Maipuruan egozan: buruzagiaren orde Dassance jauna, eta Oleaga, Gorostiaga, Lojendio, Lekuona, Villasante, Elissalde, Arrue, Irigaray, Mitxelena ta Lafitte jaunak.

Ainbat urgazle egozan entzuleen artean.

Oleaga jaunak emoten ditu arautegiaren zeaztasunak eta zelan bi euskaltzaiñek ekarri bear daben euskaltzain barria. Irigaray ta Arrue joan dira dei egiten eta guztion aurrera dakarre, Dassance jaunak berba batzuk esan eta Eppherre jaunak egin dau itzaldia. Elissalde jaunak erantzun deutso. Arrue jaunak esan ditu azkeneko berba bizi batzuk. Eskua emon jako euskaltzain barriari eta makilla bat eskeiñi.

An egozan euskaltzain ta entzule guztiak aobatez "Gernikako Arbola" kantau dogu.